

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2021-UZTAILAREN 2A-430.ZENBAKIA

KARKARA

BAZKIDEENTZAT

+ UDAKO GUKA BEREZIA
+ IKUSBERA ALDIZKARIA



ALOKAIRU SOZIALA

HERRIA ONURADUN


MATRIKULA IREKIA 2021-2022 Ikasturtea

- Orioko Hizkuntza eskola
- Ingeles, frantses, aleman eta japonierako espezialistak
- Cambridgeko azterketak prestatzeko zentroa
- 5 urtetik gorako umeentzat hizkuntza klaseak
- Prestakuntza eta esperientzia handiko irakasleak
- Zure mailara egokitutako material didaktikoak
- Atzerrian hizkuntzan murgiltzeko proposamenak



Zatoz
gu
ezagutzera!

648 97 64 70
info@narau-school.com
www.narau-school.com



Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
Fax-a: 943-89 05 62
alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
www.cristaleriaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Lurretik
Garbiketak
SERVICIO INTEGRAL DE LIMPIEZA

- Garbiketa orokorrak
- Etxebizitzak
- Bulegoak
- Obra amaierak
- Garajeak
- Ostalaritza

Santio erreka 41, Aia-Orio
636 18 82 92 / info@lurretik.es

edaritegia **Antilla** *jatetxea*

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitaratekoak

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



arkaitz taberna
... uio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terma ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57



Zerbitzu teknikoak
24 ordu

iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28

azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudariaren kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37



KARKARA 430

2021-UZTAILAREN 2AN
AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
IÑIGO GAITON



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Iritsi zaigu uda
- 6 **Hitz tantak** Iñigo Gaiton
Iratz Urkizu
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Eskubaloia hondarretan
- 10 **Gutunak**
- 12 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
Oriotik Lasartera, Ortzaiketik barrena
- 17 **Erreportajea** Iñigo Gaiton
Estatxa askatzeko ordua heldu da
- 23 **Herrian galdezka**
- 25 **Ikasleak idazle** Aiako Lardizabal
Herri Eskola
- 26 **Erreportajea** Onintza Lete Arrieta
eta Aiora Larrañaga Solaberrieta

- Etxebizitza eskubidea bermatzea xede*
- 34 **Akuilua hartuta** Orio Eragin
Eskubaloia Kluba
Eskubaloia nesken artean errotuz
- 36 **Moila bazterretik** Aritz Pardina
Inspirazioaz
- 39 **Osasuna** Itziar Olasagasti
Indar entrenamendua
- 41 **Euskara** Jabier Zabaleta
Euskara Orion. Non egon nahi dugu 10 urte barru?
- 42 **Plazan bazan**
- 44 **Zerbitzuak**
- 45 **Agenda**
- 46 **Hasi bertsotan** Ibai Esoain

KARKARA



Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus
Lehendakaria
Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua
Aiora Larrañaga Solaberrieta
Erredaktore taldea
Onintza Aiestaran
Onintza Lete Arrieta
Elizabeth Manterola
Iñigo Gaiton
Rikardo Uzkudun

Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Maria Lopez

Publizitatea
Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Iñaki Iturain

Aritz Pardina
Itziar Olasagasti
Jabier Zabaleta

Banatzzaileak
Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala

IZARRA ELEKTROGAILUAK

10 URTE!!!

txartelen zozketa sarirekin!

10 OPARI

Boltsa bat opari!

Eusko Gudari, 44 · 20810 Orio (Gipuzkoa)
izarraelectrodomesticos@gmail.com

Tien21

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09

GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

IGLESIAS SARRAILAGILEAK

iglesiasscarrajereros@yahoo.es
www.iglesiasscarrajereros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

ITZIAR KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

Joseba AROZTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

**ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARROZTEGIA OROKORREAN**

Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

KAÏOA

kaioa_denda
www.kaioa.es

kutixi kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

LASTER DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Iritsi zaigu uda



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Koronabirusa, izurritea, COVID-19a, itxialdia, konfinamendua, pandemia, maskara, gel hidroalkoholikoa, edukiera baimendua, intzidentzia tasa, segurtasun neurriak, protokoloa, PCR zein antigeno proba eta beste hainbat termino hitzetik hortzera erabili ditugu azken 17 hilabeteetan. 2020ko martxoaren 15a baino lehen, nork esango zigun eguraldiaz hitz egin ohi genuen bizilagunarekin azken egunetan atzemandako kasu positibo berriez eta intzidentzia tasaren gorabeheraz jardungo ginenik? Duela urte eta erdi, ordea, bat-batean aldatu zen ordura arte ezagutzen genuen gizartea, baina badirudi tunelaren bukaera ikusten ari garela.

Azken hilabeteetan aurrerapauso garrantzitsuak egin dira: Adinekoak eta helduak txertatuta daude, 30-39 urte artekoak txertatzeari ekin dio Osakidetzak, eta gazteak eta nerabeak txertatzeko plana ere egin dute agintariek; Espainiako Gobernuak alarma egoera bertan behera utzi zuen maiatzaren 9an; horrez gain, kultur eta kirol ekitaldiak antolatze baimena eman dute, ostalaritzaren ordutegia zabaldu dute eta hainbat murrizketekin eta baldintzekin bada ere, turismoari ateak irekitzen ari dira. Ekainaren 26tik, gainera, ez da nahitaezkoa maskara erabiltzea aire zabalean, eta Iñigo Urkullu lehendakariak jakinarazi zuen Labi batzordea berriz elkartuko dela hilabete hasieran, intzidentzia tasaren joera ona bada, osasun larrialdi egoera bertan behera uztea aztertzeke. Udari ongi-etorria emateko aparteko albisteak dira horiek, baina adituek gogorarazi dute normaltasuna lortzeko azken ahalegin honetan, herritarrok inoiz baino kontzienteago izan behar dugula. Hain zuzen ere, Felix Zubia Donostiako Ospitaleko ZIuko buruak Osasun Etxea irratsaioan honakoa azaldu zuen ekainaren amaieran: “Ez nau batere kezkatzen aire zabalean musukoa kentzeko baimenak, arduratzen nauena da toki itxietara sartzean izango dugun jarrerak. Musukoa poltsikoan eraman eta janzteko ohitura hartu behar dugu eta”. Izan ere, lehen beti geneukan soinean, baina orain behar denean janzte beharrezkoa da. Distantzia sozialaren garrantzia ere azpimarratu zuen Zubiak: “Besteengandik hurbil gaudenean parean dugunaren ahotik ateratzen diren tanta handiak gure sudur-ahora iristen dira, eta guk hitz egitean, abestean edota eztul egitean botatzen ditugunak besteei iristen zaizkie. Horregatik, distantzia utzi beharra dago”.

Hala, gaur egungo datuak ikusita, izurritea arindu dela badirudi ere, oraindik bide luzea dugu aurretik; beraz, kontu handiz ibili beharko dugu udako oporraldian, berriz agerraldi garrantzitsurik gerta ez dadin. Ea irailaren 17an, iraileko aldizkaria banatzen dugunean, albiste onekin bueltatzen garen. ■■■

**AZKEN HILABETEETAN
AURRERAPAUZO
GARRANTZITSUAK EGIN
DIRA IZURRITEARI
DAGOKIONEZ**

Iratz Urkizu

TESTUA: IÑIGO GAITON

ARGAZKIA: UTZITAKOIA

Iratz Urkizuk (Orio, 1996) estreinako diskoa plazaratu zuen ekainaren 11n, eta hizketaldian zehar sarritan nabarmendu duenez, “aspaldiko ametsa” bete du. Hori gutxi balitz, handik astebetera Arraunetxen jo zuen lehen kontzertua, etxekoen eta lagunen aurrean. Emozioz beteta mintzatu da elkarrizketan.

Nola bizi izan zenuen Arraunetxeko emanaldia?

Oso berezia izan zen, emozio asko izan nituen bueltaka oholtzaren gainean. Luxua izan da diskoa herrian bertan, etxekoen eta gertuko jendearen aurrean aurkezteko aukera eduki izana.

Lorik egin al zenuen aurreko egunetan?

Elkarrizketa batzuk egitea tokatu zitzaidan astean zehar, eta horrek kontzertuan gehiegi ez pentsatzen lagundu zidan. Gero, egunean bertan, urduri antzera ibili nintzen, bai.

Etxean jotzea lagungarria izan al zen? Edo presio gehiago jarri zizun?

Publikoan gertuko jendea ikusteak konfiantza eman zidan, eta eroso sentitu nintzen lehen unetik, baina bestalde, etxekoak ditut kritikorik handienak. Egia esan, gozatu egin nuen emanaldian zehar, eta motz geratu izanaren sentsazioarekin itzuli nintzen etxera.

Erromerietan lau orduko kontzertuak ere eman izan ditugu, eta gureak 45 minuturen bueltako iraupena izan zuen. Behin nerbioak joanda eta puntu onenean nengoela bukatu behar izan genuen saioa.

Bide Batez erromeria taldearekin plazaz plaza ibiltzera ohituta zaude. Zer alde dago besteen bertsioak egitetik zure abestiak kantatzera?

Jendea dantzara edo festara joaten da erromerietara, ez abesti jakin batzuk entzutera. Gure diskoaren aurkezpenean, aldiz, banekien publikoa nire abestiak entzun zain zegoela, eta erromeriatan baino presio handiagoa sentitu nuen.

Noiz hasi zinen zure kantuak sortzen?

Iazko udaberriko itxialdian. Gitarra jotzen ikasteko gogoia nuen aspalditik, eta etxeratze agindua aprobetxatu nuen horretarako. Besteen kantuekin trebatzeari ekin nion, eta oinarritzko akordeekin moldatzen nintzela ikusitakoan, nire kantuak sortzen hasi nintzen. Betidanik izan dut nire kantuak abesteko ametsa, eta espero gabeko momentuan egia bihurtu da.

/Iratz diskoko konposizioak zureak dira. Hitzak, berriz, ingurukoei eskatu dizkiezu.

Ez dut erraztasunik idazteko, eta nahiago izan dut abestien hitzak besteen esku utzi. Itzea Urkizu lehengusuak eta Xabier Sukia bertsolariak egin dituzte. Kirmen Uriberen poema bat ere musikatu dut.

Sortuntza prozesuan parte hartu dutenen zerrendari erreparatuta, etxeko asko dago.

Etxahun Urkizu lehengusuak grabatu du bateria, eta Ainhoa Urteaga lehengusinak pianoa. Gitarra jotzailea ere oso gertukoa dut, Bide Batez taldeko laguna. Bideoklipa, berriz, Urtzi Garmendiak egina da, beste lehengusu batek. Egia esan, luxua da etxean halako artistak izatea. Ondoan nahi izan ditut hasieratik.

Etiket jaso duzu musikarako grina ere.

Bai. Aitak eman zidan nire kantuak egiten hasteko bultzada. Bere garaian *Bakarrik nindoala* kasetea plazaratu zuen, eta bilduma horretako *Bizitzarekin lehian* abestiaren bertsioa sartu dut nire diskoan. Hil zitzaigun osabari eskaini zion aitak, eta kantu berezia da etxekoentzat.

Kritikorik handienak etxean dituzula aipatu duzu lehen. Orokorrean, zer iruzkin jaso dituzu?

Sentipenak giltzapean singleak harrera oso ona izan zuen. Bideoklipak 10.000 ikustalditik gora izan zituen Youtuben lehen hiru egunetan. Gero, etxean eta kalean jasotako kritikak onak izan dira. Txarrak ere egongo dira ziurrenik, baina horiek ez dizkidate esaten... kar kar kar. ■■■



Eskubaloia hondarretan

ARGAZKIA: AIORA LARRAÑAGA

SOLABERRIETA

TESTUA: IÑIGO GAITON

Ekaineko bigarren asteburuan, 250 jokalaritik gora bildu zituen Orion Euskadiko Hondartza Eskubaloï Txapelketak. Lau jokaleku egokitu zituzten hondarretan antolatzaileek, eta 20 elkartetako partaideek 20 minutuko partidak jokatu zituzten. Tartean izan ziren oriotarrak ere. Eguraldi aparta lagun, jendetza bildu zen lehiaketaren bueltan, eta uda giroaz gozatzeko aukera izan zuten jokalariek eta zaleek. Sergio Barcenilla Euskadiko Eskubaloï Federazioko presidentearen hitzetan, hondartza eskubaloia “garapenean” dagoen modalitatea da, eta balioan jarri zuen lehen lehiaketa ofiziala Antilla hondartzan antolatu izana: “Eskubaloï mota honek tradizio handiagoa du Bizkaia aldean, eta hemen ere indartu egin nahi dugu. Pribilegiatuak sentitzen gara txapelketaren lehen zatia Orion egin izanagatik”. ■■■





Ohiko asteburu bat Orion

MIKEL ATXEGA

Asteburua pasa da, eta astelehenean errutinara itzultzearen nagiarekin batera, larunbatean eta igandean hondartza inguruan ateratako argazkiak iristen zaizkigu sakelakora. Tarteka, goizetako hego haizeak orrazturiko olatuen irudiak izaten dira, baina uda aldera, bestelako argazkiak ere iritsi ohi zaizkigu: hondartzako zakarrontziak gainezka eginda. Begi bistakoa denez, hondakinen kudeaketa ez da egokia hondartza inguruan.

Zoritxarrez, gero eta maizago izaten da arazo hau, eta uda honetan askotan errepikatuko da. Osasun krisiaren ondorioz turismoak gora egin du Orion, eta baten batek pentsa dezake hori dela arazo honen arrazoa, baina lehenago ere izaten zen arazo bera.

Pasa den udan hondartzan gehigarri modura jarritako edukiontziak ikusi genituen askotan gainezka eginda. Jendearen hondakinak kudeatzeko edukiontzi gehiago jartzeaz gain, arazoak beste kudeaketa bat eskatzen du. Bilketa maizago egin beharko litzateke, agian?

Kudeaketa desgokiak herriari ematen dion itxura txarraz gain, hondakinak behar bezala sailkatu ahal izatea eragozten du; zeharkako arazoak bultzatzen ditu, zaborrak erraustegi edo zabortegien bitartez tratatu

behar izatea, esate baterako. Bestalde, itsasoa hain gertu izanik, gainezka egiten duten hondakinek uretan amaitzeko arriskua dute, guretzat hain maitea den inguru naturala kaltetuz.

Hori guztia dela eta, hondakinen kudeaketa egoki bat izateko beharrezkoak diren konponbideak eskatu nahi dizkiegu agintariei, astelehen goizetan olatuen irudiak nagari aurre egiteko hobeak baitira! (Maiatzaren 31n bidalitako gutuna)

Eskertza gutuna

LUIS ETA ANA

Orioko Udaltzaingoa osatzen duten langile eta agenteei eskerrak eman nahi dizkiegu. Izan ere, azken aldian izan ditugun etxe arloko bi istripuetan jokaera paregabea izan dute, eta beren laguntzari esker arazoak konpontzea lortu dugu, gainera.

Orioko udaltzainek beren lana ondo egiteaz gain, jator eta efizientziaz egiten dute. Eskerrik asko benetan beti herritarrei laguntzeko prest egoteagatik.

Bidegorria hondartzaraino

BIZIZALEA

Orioko Udalak herri barruan oinez edo bizikletan ibiltzera animatu gaitu herritarrek, San Juan bezperan plazaratu duen ohar baten bidez. Bejondeiola! Bizikletazaleok bat gatzoz Udalak

herritarren osasunaren eta ekologiaren alde erakutsi duen sentsibilitatean. Arrazoi du, ez dago aitzakiarik gazteak noiznahi hondartzara automobilez joateko. Baina jendea horretara gonbidatzea ez da nahikoa, aurrerapausoak behar dira. Herri barruko bidegorria Bikamiotan bukatzen da; hantxe dago muga aspalditxotik. Udalari dagokio hari segida ematea, hondartzaraino iritsi dadin. Beste neurri bat ere behar-beharrezkoa da bizikletaren erabilera sustatzeko: herriko plazaren inguruan bizikletak aparkatzeko leku gehiago behar da. Eginkizun horiek Udalari dagozkio. Animo! ■■■

JAIOBERRIAK

• Martin Lertxundi Marti.

Orion, ekainaren 14an.

• Hodei Lertxundi Marti

Orion, ekainaren 14an.

HILDAKOAK

• Joakin Uranga Aiestaran.

Orion, maiatzaren 31n. 88 urte.

• Maria Martina Sarriegi Agirre.

Orion, ekainaren 9an. 91 urte.

• Teresa Manterola Aldaz.

Orion, ekainaren 13an. 92 urte.

• Itziar Loidi Iruretagoiena.


Orion, ekainaren 17an. 84 urte.

• Ramon Landa Izeta.

Orion, ekainaren 22an. 74 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARARA** bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaioko Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orío



MIROTZA
ROOMS & APARTMENTS

+34 676 82 07 32

50 LAGUNENTZAKO OSTATUA



MIROTZA
TABERNA

943-83 12 19

ALMIRANTE OA KALEA, 2 20810 ORIO (GIPUZKOA)



info@mirotzaorio.com //



mirotzaorio



MirotzaOrio

Oriotik Lasartera, Ortzaikatik barrena



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIAK: IÑAKI ITURAINEN ARTXIBOA

Iazko abenduaren 13an, Lasarte-Orian omenaldia egin zioten Antonio Olideni, hango Udalak eta Michelin fundazioak antolatuta. Aurtengo maiatzaren 21ean, Joseba Urretabizkaia eta Alvaro Bermejok plazaratutako liburua aurkeztu zen Arraunetxen:

Antonio Oliden 'Konpaxa', Arraunlari eta Patroi. Orioko alkate Anuska Esnal Olidenena da hitzaurrea; eta aurkezpen ekitaldia Ortzaikako Konpaxa baserrian jaiotako arraunlari eta patroiairentzako omenaldi bihurtu zuen alkateak (Antonoren anaia Alejandroren biloba); hunkituta, hauxe adierazi zuen: «Lau Oliden anaien artean 33 aldiz irabazi dute Kontxako bandera; horrek bakarrik ondo adierazten du zer pisu izan duen arraunak haien etxean. Ortzaikan arrauna oso estu lotuta egon da beti eguneroko bizimoduarekin, etengabe erabiltzen zituzten-eta txalupak, bai lanerako, bai aisialdirako, bai kirolerako... Derrigor sortu behar han arraunlariak!».

Arraun munduan palmares *izugarriaren jabe da Antonio Konpaxa.* Kontxako bandera 11 aldiz irabazia du; eta, euskaraz, hamaika asko da. Lasarteko omenaldian, Antoniorekin batera ziren Lasarteri Kontxako

1969ko eta 1973ko garaipenak eman zizkieten arraunlariak. Estropalari haietako 11 oriotarrak dira; asko, beraz: Jose Antonio Esnal, Jose Gozategi, Manuel Elizondo, Ignacio Manterola, Antonio Zumeta, Jose Ramon Aizpurua, Etxeberria anaiak –Tiburtxio eta Klaudio–, Antonio Aduriz eta Korta anaiak –Jose Luis eta Bixentiko–.

Ortzaikaren kasua harrigarria da. Mundu guztian ez dira asko izango proportzioan horrenbeste arraunlari on eman eta arraunean horrenbeste garaipen lortutako giza komunitateak. Hango Oliden, Olasagasti, Elizondo, Korta, Etxeberria, Mujika, Arreseigor... abizenekoei arraunean utzitako ubera izugarria da. Hori ez dago ukatzerik. Baina Ortzaika jende gutxiko auzo txikia da eta, trainerua osatzeko, inguruko baserrietako mutilak hartu behar izaten zituzten, eta herrikoak ere bai, eta horrek min handia ematen zion herriko zenbait arraunzaleri, eta inoiz okasioa ekarri du; tamalez, herria bi zati antagonekotasun zatitzea ere bai.

**"LAU OLIDEN ANAIEN
ARTEAN 33 ALDIZ
IRABAZI DUTE
KONTXAKO BANDERA"**

Orioko arraunlari batzuek, kanpoko traineruetan ibili direnean ere, jarraitzaile asko izan dituzte herrian, eta batzuk sutsuak. Jose Luis Kortak, adibidez, jarraitzaile fidel asko izan ditu, bai Orion, bai kanpoan ibili denean. Baina izan dira bestelako arraunzaleak ere: bestelako kolorea defendatu duen oriotararengatik kristorenak esandakoak. Su horrek urte asko iraun du piztuta, eta jende asko erre du. Gaur egun, Orioko traineruek ere kanpoko mutil eta neska asko dituzte; eta, beharbada, horrek gauzak beste talaia batetik ikustea ekarri du.

2020ko Lasarteko omenalditik hiru egunera, honela zekarren haren berri egunkari batek: "... homenajearon a Antonio Oliden, quien obtuvo la bandera de La Concha con Orio en 1969 y 1973". Kazetariak hitz batean hanka sartu zuen. Aste hartan bertan txantxa hau zioen ortzaikazale batek: "Zer, beste bi bandera kendu nahi al dizkiguzue?".

Duela 50 urteko bertsoak gogoan

Ardi galduak bilatu
Lasarten dira juntatu
Antonio jaunak moldatu
Ortzaikakoak batzuntzat
txarrak
ezin baitute sufritu
lehenago despreziatu
geroztik kontra saiatu
baina txapeldun gelditu.



Madrialeko Erretiroko parkean, 1951n, bateletan Orioren izenean Espainiako txapelketa irabazita. Denak Ortzaiak aldekoak: Alejandro, Antonio eta Batista Oliden anaiak, Bixentiko Elizondo eta patroia Claudio Etxeberria.

Itsasoan Donostian
Santanderkoa ibaian
errion, berriz, Bizkaian
hiru bandera irabazita
Lasartek dauzka herrian
merezi duten tokian
oso leku egokian
Mitxelino bakoian.

Bertsoak Fabian Loidi apaiz
oriotarrarenak dira, Claudio
Etxeberria patroia
Lasartekin 1969an
irabazitako estropadei jarriak.
52 urte pasa diren arren, bada
oraindik ere kalean eta buruz
kantatzen dituenik. Antonio
Konpaxa ere garaipen haien
atzean zegoen: traineruan
sekula ibili gabeko baserritarrei
arraunean erakutsita egin zuen
posible itsasorik gabeko
Lasartek Donostiako bandera
irabaztea. Bertsoak gogoan 52
urtean izateko, ortzaikazaleari
emozio handia eragin behar.



Patroia Inazio Sarasua zela, Kontxako bandera irabazita, Donostiako kalean ospatzen.



Antonio Oliden patroia, Donostiako uretan, Lasarte-Michelineko traineruan.



Lasarteko traineruko mutilak garaipena ospatzen, tartean oriotar mordoxka.



Antonio Oleden, 94 urterekin arrauna eskuan eta gogoan duela. JOSEBA URRETABIZKAIA

Lasarte-Michelin eta Orioren arteko lehia

Aurten 100 urte beteko dira La Union izeneko kuadrillak irabazi zuela Kontxako estropada (1921), patroia Aita Manuel zutela. Pasaiaiko San Pedro eta San Juanen arteko batasuna zen La Union hura. Udalerri bereko bi herri batu ziren aldi hartan. Estropada eta bandera irabaziagatik, batasunak ez zuen iraun: 1921ean eta 1922an bakarrik uretaratu ziren ontzi berean; bi aldiz eta kito, nahiz eta batean irabazi!

Ortzaikaren eta Orioren artekoa ez da izan San Juan eta San Pedroren artekoa bezainbestekoa. Urte askotan elkarrekin uretaratu dira bateko eta besteko arraunlariak, baina hainbatetan Ortzaikakoak beste kolore bateko ontzietan ibili dira, eta inoiz lehia grinatsu eta gogorra izan dute elkarren artean, txinpartak atera izan dira. 1969tik 1975era, zazpi aldiz segidan oriotar bat patroia zuen traineruak irabazi zuen Kontxako bandera: bost Oriok,

**KORTA: "ORTZAIKA
ERREPUBLIKA
INDEPENDENTEA DA,
ORIOKO AUZO
ERREBELDEA"**



Jose Luis Korta eta Antonio Oliden. TXINTXARRI ALDIZKARIA



Bilboko estropadatik bueltan, oriotarrak Itziarko elizara joaten ziren, bandera bedeinkatzera. Klaudio banderarekin.

Altxerriekin; eta bi Lasartek, bana Claudio *Gorria* eta Antonio Olidenekin. Garai hartan Orio eta Lasarte-Michelin ziren bi traineru onenak, eta beren artean sekulako lehia erakutsi zuten; gehiegizkoa ere izan zen, kirol lehia jatorraren mugak gainditu zituen zenbait aldiz.

Garai eta giro haiek gogoratzen hasita, badira kontatzen dutenak Lasarteko traineruko mutil batzuek izututa pasatzen zirela entrenamenduan Orioko zubiaren azpitik, goitik entzuten zituztenen beldur. Era berean, badira gogoan dutenak 1973an gainerako estropadetan Oriorekin jokaturako mutilak, Itziarkoa zelako, ezin izan zuela Donostiako estropada jokatu, Lasartek inpuignatu egin zuelako haren parte hartzea. Mutil hura lehorrean geratu zen, eta bandera Michelinek eraman zuen.

Behin emakume baserritar bat ortuko barazkiak saltzera Orioko plazara etorrira, hala esan zion herriko beste emakume batek: “Hi, semea Lasartera joan baldin bazaizue, tomateak saltzera ere joan hadi Lasartera”. Izan zen herriko komertzio txiki bati boikota egitea proposatu zuenik ere.

Hori bai, ezkututik, eskuorri anonimoen bidez, aurpegia eman gabe; eta, tamalez, izan ziren deialdiari kasu eginda boikota gauzatu zutenak ere. Zoritzarrez, era horretako jokaerek XXI. mendera arte iraun dute bizirik.

Orio eta Ortzaiaka

Orion bi kulturaren arteko talka gertatzen zen: itsasoari eta arrantzari lotutakoena, batetik; eta mendiari, baserriari eta nekazaritzari lotutakoena, bestetik. Lehenengoak ondo ordezkaturak sentitu izan dira herrian; bigarrenak, beti ez. Urte batzuetan, gehiegitan, dibortzioa gertatu izan da bi jendartearen artean, eta baserritarren ordezkari-edo izan dira beti Ortzaiakakoak, eta oriotarrei aurre egiten saiatu dira. Horrelakoetan, erriogan gora jo behar izan dute, laguntza bila; eta, goraka, Aginaga izan dute lehenengo herria, elkarren osagarri bikainak izan dira boladetan. Gero, handik gora, Usurbil, Lasarte eta Tolosara ere iritsi izan dira.

Ortzaiakak, Aginagak Usurbilekin duen antzeko nortasun auzia izan du Oriorekin, belaunaldi batzuetan behintzat. Horrelaxe esan zuen

behin Ortzaiakan jaiotako pertsonarik ezagunenak, Jose Luis Kortak: “Ortzaiaka errepublika independentea da, Orioko auzo rebeldea. Gure artean beti izan da elkar ikusi ezina. Beti izan gara kontrario. Oriorekin genbiltzanean onak ginen, baina ez zirudien bertakoak ginenik. Eskolan ere maisuak hala moduz tratatzen gintuen. Gurekin irabazi egiten zuten, baina gure kontra, gehienetan galdu”.

1946, 1954, 1967, 1973, 1974... urteak polemikoak izan ziren oso. Eta 2001ean, Korta entrenatzaile eta patroizutela, Castrok Kontxan irabazi zuen banderak gori-gori jarri zuen berriz garai bateko giro mikatz hura, agerian jarri ziren berriro ika-mika eta liskarrak.

Oria, Orio, Ortzaiaka, Oliden... oroitzapenak. O dute denek lehen letra, borobila, gure herriko arraunlarien historia bezalakoxea; oparo bai, baina oro ez da urre izan. Artikulu hau luke dirauen gatazka baten kronika da. Zorionez, askoz gehiago du iraganetik orainetik baino. Ez zaigu komeni gerora iritsi dadin, etorkizuna izan dezan; eta, horretarako, ona da gatazkaren historia ezagutzea. ■



%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

Lizaso
Dekorazioa



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itlizaso@gmail.com



Katu
Horia
albaitaritzak klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larritaldia
668891129



MARIO
ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

MENDIZABAL
AROTZEGIA
Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaleatik)

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com




narau
school & translations



www.narau-school.com

Eusko Gudari 29 - ORIO
943-83 11 16
648 97 64 70
info@narau-school.com



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27



INDO

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa




generoa
garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Estatxa askatzeko ordua heldu da

Bihar jokatuko dira Eusko Label eta Euskotren ligetako lehen jardunaldiak, larunbatarekin. Orio Arraunketa Elkarteko txalupa bana izango da bi lehiaketetan, eta hirugarrenak dagoeneko jokatu ditu KAE1 ligako zenbait estropada. Zer helburu ote dituzte etxeko traineruek datozen hilabetei begira?

Testua eta argazkiak: **Iñigo Gaiton.**

Uda hasiera garai berezia izan ohi da estropalariarentzat. Neguko lehorreko lanak atzean laga, denboraldi aurreko jaitsieretan hobetu beharrekoak doitu, eta traineruan benetako estropadei ekiteko unea izaten dute. Aurten ere Orio Arraunketa Elkarteko hiru txalupak egingo dute arraunean udako denboraldian, eta KARKARAK Arraunetxera jo du haien asmoen eta helburuen berri izateko.

Emakumezkoen traineruak denboraldi ikaragarria egin zuen iaz, eta haiek irabazitakoak izan ziren elkartek lortutako bandera gehienak. Nagusitasuna erakutsi zuten estropada askotan, eta herrian luzaroan gogoratuko da iazkoa. Itxaso Azkonobieta estropalariaren hitzetan, taldeak badaki irabazten, lehengo urtean erakutsi zuten modura, baina galtzen ere ondo ikasitakoak dira: “Santi Zabaleta entrenatzaileak beti erakutsi izan digu oinak lurrean izaten. Atzeko postuetan urteak egin genituen, eta uste dut heldutasun maila handia duela taldeak, aurten iaz baino gazteagoa izango den arren”.

Bajak eta altak kontuan izanik, taldea berritu egin dela iritzia dio Azkonobietak, bizkarrezurra mantendu duten arren. Jaitsi egin da arraunlarien adinaren batez bestekoa, eta hori ontzat jo du: “Neguan egin dugun lanari esker, taldekide berriak ondo egokitu dira; tartean, jubeniletatik igo diren hiru gazte daude. Lan asko ikusi dut inguruan, eta horri esker entrenamendu oso onak egin ditugu”.

Neguan arraunketa ona izatera iritsi direla nabarmendu du arraunlariak, eta azken asteotan horri erritmoa sartzen jardun dute. “Blokeari eustea lortu dugu, eta uretako lanari dagokionez, taldekide berriak gure arraunketara egokitzea lortu da”.



Gizonezkoen taldea lehengo astean, txalupa uretara bota berritan.

Itxaso Azkonobieta Arraunetxeko gimnasioan.

Aurkari oso gogorrak

Azkonobietaren esanetan, aurkariak talde indartsuagoak dituzte aurten, eta hori antzeman da denboraldi aurreko estropadetan. Orio faborito nagusia izango ote den galdetuta, presiorik ez dutela sentitzen adierazi du: “Geure buruari asko exijitzen diogun jendea gara, eta urtero bezala ekingo diogu udari. Atzerago ibili ginen urteetan oraingo helburu bera genuen: beti maila onena ematen saiatzea, estropadaz estropada gure bertsiorik onena erakustea xede hartuta. Iazkoa berdintzea oso zaila izango da, baina gogor saiatuko gara”.

Jon Salsamendik ere iritzi bera du, eta gizonezkoen lehen txalupak “aurkari oso gogorrak” izatea espero du. “Ohorezko txandan tokia izatea da gure helburua, baina ligako zerrendari erreparatuta, zaila da aurreneko lau postuetan nor ibiliko diren asmatzea. Iazko erreferentziak kontuan izanik, nor eroriko da? Horrela esanda, helburuak soila edo erraza dirudi, baina ez da horrela. Segundo bakoitza postu bat da, eta edozein akats garesti ordainduko da”, hasi da hizketan.

Aurten, arraunlari kopuruari begira “hanka-motz” geratu direla nabarmendu du: “Negua 30 edo 31 estropalarirekin egin dugu, eta kopuru horiekin oso zaila da udan bi traineru lehiakor ateratzea. Lehen taldeak 26 estropada jokatuko ditu bi hilabete eta erdian, eta horrek dakarren karga kontuan izanik, miraria izango da astebururo normaltasunez lehiatu ahal izatea”, azaldu du argi. Mutilen kalitateak ez du kezkatzen, kantitateak baizik: “2019an liga irabazi genuen. Urte hartako lehen estropadako tripulaziotik hiru arraunlari bakarrik falta dira aurten, eta patroia. Kalitatea, beraz, ez da aitzakia izango”.

Gorka Aranberri erreferente bihurtu da Orion egin dituen urteetan, estropalarietzat eta zaleentzat. Patroia Santurtzira joan izanak taldearen arraunketa moldatzera behartu ote duen galdegin zaio entrenatzaileari: “Ez, ez. Patroiaren ezaugarri fisikoek, pisuak batez ere, eragin handiagoa izango dute arraunketan, haren mailak edo trebeziak baino gehiago. Sei edo zazpi kiloko aldeak aldetak egitera behartuko gintuzke orekari eta biomekanikari lotutako kontuetan. Ez da kasua. Gorka 60 kilotik jaisten zen denboraldian, eta Ugaitzek, gizen egonda ere, 57 kiloko pisua du. Landu beharreko aldaketa bat da Gorka joan izana, beste askoren artean”.



Iaztik sei baja izan ditu lehen taldeak, eta ez dute kanpotik etorritako kide berririk tostartean. Bigarren txalupako estropalariekin osatuko ditu tripulazioak Salsamendik, eta harrobikoek toki gehiago izango dute. “Zorionez, etxe barruan bilatu dugu falta zitzaiguna. Urrats bat aurrera emateko aukera izango du gazte batek baino gehiagok”.

Edozeini aurre egiteko gai ikusten du lehen txalupa. “Orioko identitatea mantendu behar dugu, izaera, eta garbi eduki zer garen aurrean. Emaitzak iristen ez direnean hondoratzen ez bagara, edozer egiteko gai izango gara”.

Emakumezkoen taldea ekainaren 21ean, uretako saioa hasteko prest.

Santi Zabaleta uretara atera aurretik estropalariei azalpenak ematen.

NON DAGO KARKARA?



Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna *karkara@karkara.eus* e-posta helbidera bidali uztailearen 23a baino lehen. **Saria:** Elkar liburu lote/pack-a eta 4 lagunentzako 2 gosari Kutixin. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

KARKARAKO bazkide Ignazio Lertxundik irabazi du Egiguren argazki sesioa.





Jon Salsamendik bosgarren denboraldia du aurtengoa Orio AEren entrenatzaile modura.

Anjel Larrañaga, ekainaren 20an Getarian jokaturako estropadarako txalupa puntuan jartzen.



Etorkizunera begira

Salsamendik bosgarren denboraldia egingo du Orion entrenatzaile modura. Gizonezkoen taldearen gidaritza hartu izana inflexio puntua izan zen askorentzat, eta atzera begira jarri du kazetariaren galderak: “Nik ez dut emaitzen baloraziorik egingo, hori zaleen eta elkartearen esku dago. Normala den bezala, errendimenduaz gain beste gauza asko sentitzen ditut Orioko entrenatzaile izanda, eta azken bi urteetan gauza asko gertatu dira, bi oso garrantzitsuak: izurria batetik, eta zuzendaritza eta babesle aldaketa bestetik. Momentu honetan, inflexio puntuan ikusten dut elkarte”.

Etorkizunera begiratzeko une garrantzitsua dela iritzi dio, eta baikor agertu da: “Zer garen eta zer daukagun jarri behar dugu esku batean, eta datozen urteetan nora joan nahi dugun bestean. Ariketa hori zintzotasunez egitea beharrezkoa ikusten dut elkartearentzat, hurrengo urteetarako proiektu sendo bat diseinatzeko”.

Harrobian ere kolpeka

Erreportajea idatzi den unean, mutilen bigarren taldeak KAE1 ligako bi jardunaldi jokatu ditu. Hamaikagarren izan ziren aurrenekoan, bederatzigarren bigarrenengoan. Iaz, ligan egindako lehen urtean, ondo eutsi zioten mailari. Larrañaga entrenatzailearen hitzetan, helburu bera dute aurten. “KAE1 liga oso gogorra izango da, lehiakide erdiak TKE-n ibilitako traineruak direlako: San Juan, San Pedro, Pedreña... Arraun elkarte jakin batzuetako lehen taldeak dira horiek, eta gu punta-puntako elkarte baten bigarren txalupa gara”.

Bere hitzetan, tripulazioaren bizkarrezurra mantentzea lortu dute, baina baja batzuk izan dira, eta “zertxobait ahulagoa” da aurten taldea. Hala ere, bide onean ikusten ditu mutilak. “Neguan jarrera eredugarria izan dute. Izurria dela-eta, hilabete gogorrak pasatu ditugu, baina kirol arloan ez dago aitzakiarik, prestaketa ondo burutzea lortu dugu”, azaldu du asebeteta. Traineru bat estropadetan lehian dabilen unetik, errendimenduak eta emaitzek garrantzia izaten dute estropalari eta prestatzaile ororentzat, baina bigarren taldean badira gauza garrantzitsuagoak: “Gazteei entrenatzeko kultura erakusten saiatzen gara, lanerako dinamika mota bat, elkartearen oinarria eta harrobia sendotzeko helburuarekin. Estropalari batek gozatzen ere ikasi behar du, batez ere beheko maila hauetan”. ■■■

**SALSAMENDI:
"OHOREZKO TXANDAN
TOKIA IZATEA DA GURE
HELBURU NAGUSIA"**

**LARRAÑAGA: "KAE1
LIGA OSO GOGORRA
IZANGO DA, LEHIKIDE
ERDIAK TKE-N
IBILITAKOAK BAITIRA"**

GIZONEZKOAK

EUSKO LABEL LIGA

Arraunlaria	Adina	Urteak klubean	Jaioterria
Martxel Aldai	23	11	Aia
Xabier Arregi	29	15	Aia
Jon Arriola	21	8	Orio
Kepa Arrizabalaga	40	2	Pasaia
Iosu Arruti	25	9	Orio
Ibon Arruti	34	11	Orio
Joseba Azkonobieta	24	7	Zarautz
Jokin Azkonobieta	21	6	Orio
Bersaitz Azkue	39	4	Zarautz
Andoni Campos	30	10	Orio
Jon Carazo	30	6	Barakaldo
Kepa Eizagirre	28	7	Aia
Joritz Etxeberria	32	5	Donostia
Imanol Garmendia	29	13	Donostia
Ibai Gonzalez	28	2	Palma
Jon Iriondo	44	9	Ondarroa
Mikel Lizarralde	20	7	Orio
Aritz Lizarralde	26	13	Orio
Jon Lizarralde	21	7	Orio
Ugaitz Mendizabal	30	3	Irura
Jon Olaizola	21	7	Donostia
Xabier Ostolaza	38		Orio
Iosu Ostolaza	28	10	Usurbil
Mikel Peña	25		Ondarroa
Gorka Toledo	26	7	Tolosa
Fernando Valenciaga	37	8	Donostia

Entrenatzailea Jon Salsamendi

AUPA ORIO!

EMAKUMEZKOAK

EUSKOTREN LIGA

Arraunlaria	Adina	Urteak klubean	Jaioterria
Nadeth Agirre	27	13	Orio
Olatz Agirregabiria	30	4	Itziar
Maialen Aizpuru	28	6	Getaria
Maddi Alkain	19	6	Aia
Amaia Arregi	26	6	Aia
Ane Arruti	20	6	Aia
Itxaso Azkonobieta	24	11	Orio
Lyudmyla Davidenko	21	5	Ukraina
Intza Erkizia	19	6	Orio
Amaia Galdos	26	3	Ondarroa
Leire Garate	32	7	Elgoibar
Tayde Gomez de Segura	29	5	Zarautz
Udane Hoyos	22	7	Aia
Sarai Idigoras	19	6	Orio
Oihane Iraola	28	10	Tolosa
Garazi Oliden	27	10	Orio
Maria Victoria Piñeiro	36	2	Cangas
Sandra Piñeiro	25	2	Boiro
Jennifer Rodriguez	19	5	Orio
Edith Uranga	20	7	Orio
Mireia Uranga	24	7	Orio

Entrenatzailea Xanti Zabaleta

AUPA ORIO!

BABESLEAK



ARRAUN DENBORALDIA 2021



ESTROPADEN EGUTEGIA

UZTAILA

Eguna	Estropada	Herria	Lehiaketa
3	Coruña Hirri Bandera	A Coruña	TKE/Euskotren
4	Coruña Hirri Bandera	A Coruña	TKE/Euskotren
10	Donostiarr Bandera	Donostia	TKE/Euskotren
11	Bandera Petronor eta Edonor	Zierbena	TKE/Euskotren
17	Orio Estropadak	Orio	TKE/Euskotren
18	Getxoko Ikurrina	Getxo	TKE/Euskotren
24	Caixabank Bandera	Castro Urdiales	TKE/Euskotren
25	Lekeitoko Estropada	Lekeitio	TKE/Euskotren
31	Bilboko Bandera	Bilbo	TKE/Euskotren

ABUZTUA

Eguna	Estropada	Herria	Lehiaketa
1	Santurtzikoko Ikurrina	Santurtzi	TKE/Euskotren
7	Barbanza Arousa Bandera	Rianxo	TKE
8	Boiroko Bandera	Boiro	TKE
14	Zarauzko Estropadak	Zarautz	TKE/Euskotren
15	Zarauzko Estropadak	Zarautz	TKE/Euskotren
21	Ondarroako Bandera	Ondarroa	TKE
22	Hondarribiko Bandera	Hondarribia	TKE
28	Aresko Bandera	Ares	TKE
29	Moñako Bandera	Moaña	TKE

IRAILA

Eguna	Estropada	Herria	Lehiaketa
18	Bermeoko Ikurrina	Bermeo	TKE
18	Play Off 1	Bermeo	TKE/Euskotren
19	Portugaleteko Bandera	Portugalete	TKE
19	Play Off 2	Portugalete	TKE/Euskotren

IRAILA - KONTXAKO BANDERA

Eguna	Estropada	Herria	Lehiaketa
2	Sailkapena	Donostia	TKE/Euskotren
5	1. jardunaldia	Donostia	TKE/Euskotren
12	2. jardunaldia	Donostia	TKE/Euskotren

AUPA ORIO!



Zer tankera hartzen diozu aurtengo udari?




AMAIA GOZATEGI

Egoerak hobera egiten jarraituko duen esperantza daukat, udari begira. Azken urtea gogorra izan da guretzat, eta uda honetan Boga Bogan mugimendu handiagoa izatea aurreikusten dut. Dena den, osasun krisiak kolpea eman dio etxe askotako ekonomiari, eta bisitariak zuhur dabiltzala esango nuke. Kanpinean jende dezente ikusi arren, hori ez da jatetxean islatzen. Nire oporrei dagokionez, datozen hilabeteetan gogor lan egitea tokatuko zait, baina kanpora joateko aukera izango banu, gustura bidaiatuko nuke, inongo beldurrik gabe. Hondartza aldean lan eginda, ohituta gaude inguruan jende askorekin ibiltzera.



ANDER BELDARRAIN

Itxura ona du. Lehengoan beste tabernari batzuekin egon nintzen hizketan, eta iritzi hori zuten gehienek. Asteburuetan badabil jendea, eta astegunetan ere mugimendu handiagoa ikusten da herrian. Gero, gaueko ordutegia zabaldu zutenetik ere, jendea gehiago animatzen da ateratzera. Parrandaxoren bat egiteko aukera ere izango da, baina lehengoak bezelakorik ez, oraindik behintzat. Baina bai, egoera iazkoa baino hobea da, besteak beste, txertoagatik. Tokatzen zaidanean hartuko dut, oso aldekoa ere ez naizen arren. Osasun krisiari bukaera emateko irtenbide bakanetakoa izango da. Ni lanean izango naiz udan, baina bestela berehala joango nintzateke oporretara, gustura asko gainera.



IRAITZ SEGUROLA

Ematen duenez, jendea animatzen hasi da azken asteetan. Dena den, txertaketan txandak tarteko, erreserba batzuk baliogabetu dituzte bezeroek. Udak itxura ona du, mugimendu handiagoa antzematen da ostatuko erreserbetan. Udaberrian zehar asteburuak beteta izan ditugu hemengo bezeroekin, eta orain astegunetan ere izaten ditugu bisitariak. Bestalde, abuztutik aurrera nazioarteko bisitari gehiago hartzea espero dugu. Tabernari dagokionez, duela gutxi zabaldu genuen, eta jendea badabil barruan nahiz terrazan; txertoaren eragina ere izango da hori ziurrenik, lasai eta konfiantzarekin ikusten dira bezeroak. Gure oporrei dagokionez, ostalari gehieneri gertatzen zaien modura, udan lan egitea tokatuko zaigu, eta udazkenean hartuko dugu atsedena. ■■■

UZTAILAREN 2^{TIK} IRAILAREN 10^{ERA}

2021 GUKA

ARGAZKI LEHIAKETA

B K erlo ✨ KH LI ZH



Parte hartzeko, bidali zure datuak eta argazkia(k):

1. GUKA argazki lehiaketaren webguneko txokora datuak eta argazkia(k) **zuzenean igota**.
2. Posta elektronikoz '**lehiaketak@ukt.eus**' helbidera idatzita.
3. Whatsapp bidez, **688 84 63 51** zenbakira idatzita.

SARIAK

1. EPAIMAHAIAREN SARIA: XOXOTeko ATERPETXEAN LAU LAGUNENTZAKO EGONALDIA (GAU BAT) MANTENU-ERDIAN (AFARIA ETA GOSARIA).
2. IKUSLEEN SARIA: TALAI BERRI TXAKOLINDEGIAN BI LAGUNENTZAKO UPATEGIRA BISITA, HAMAIKETAKOA ETA PARE BAT BOTILA
3. BOTOA EMATEN DUTEN ERABILTZAILEEN ARTEAN ZOZKETA: BI LAGUNENTZAT PADDLE SURF IBILBIDEA ORIA IBAIAN



AIAKO LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Talde izaera indargune

LH 6KO IKASLEAK

U nai Lopetegi gure eskolako irakaslearekin elkarrizketa polit bat izateko aukera izan genuen, eta KEMEN elkarteari buruz hainbat kontu ikasi genituen.

Zer da KEMEN?

KEMEN kirol klub inklusiboa da, eta desgaitasunen bat duten eta ez duten pertsonen osatzen dute. Kirolaz gain gizartea kontzientziatzen eta sentsibilizatzen lan egiten dugu, desgaitasuna duten pertsonen kirol integrazioa lortzeko asmoz. Desgaitasunaren normalizazioari garrantzia handia ematen diogu, eta hori islatzen da desgaitasuna duten pertsonen Behobian Donostia lasterketan, atal hori guk antolatzen baitugu.

KEMENen desgaitasuna duten pertsonen kirol-hastapenean ere laguntzen dugu, materiala eta banakako aholkularitza tekniko eskainiz.

Boluntario asko gaude klubean, jardueren dinamizazioan eta kirol atalen antolaketan laguntzen.

Noiztik zara KEMENeko kide?

Duela 25 urte hasi nintzen desgaitasunen bat zuten kirolarien Behobia Donostia lasterketan laguntzen.

Zerk animatu zintuen KEMENen parte hartzera?

Lasterketan bizi nuen giro ederrak eta bertan sortutako lagun giroak pixkanaka KEMENen jarduera gehiagotan parte hartzera eramane nau.



Zer kirol mota egiten dute parte hartzaileek?

Gure kirol eskaintza anitza da: atletismoa, txirrindularitza, igeriketa, tiro olinpikoa, Boccia, Slaloma, golfa, mendi sekzioa, triatloia. Kirolari bakoitzak aukeratzen du zein mailatan leihatuko nahi duen. Baina kirol horiez gain, beste ekimen batzuk egiten ditugu: raftinga, Gurpil Eguna, bisitak...

Zenbat kide zarete?

150 bazkide inguru gara elkartearen.

Norbaitek kide izan nahiko balu, zer egin beharko luke?

Kirolari nahiz boluntario bezala aritzeko jarraitu beharreko bidea bera da. Gurekin harremanetan jarri behar da kemen@kemen.org-era mezua bidalita edo telefonoz deituta.

Azaldu KEMENen izandako une polit bat.

KEMENek eman didana azpimarratuko nuke. Aukera asko izan ditut toki berriak eta jende asko ezagutzeko, baina zerbait nabarmentzekotan bertan egin ditudan lagunak izango lirateke. Azken finean, talde izaera horrek ematen diolako indarra KEMENi. ■■■



IRATI ETA GARAZI

Agur Lardizabal

Kaixo, gu Garazi eta Irati gara eta HH2tik Lardizabal Eskolako ikasleak izan gara.

10 urte eder pasa ditugu eskola honetan, Lardizabalen. Baina zoritxarrez iritsi da agur esateko ordua, hurrengo ikasturtean ez garelako hemen egongo, Zarauzko Lizardin baizik.

Oso ondo pasa dugu Lardizabalen egon garen urte hauetan guztian, eta asko ikasi dugu. Matematika, hizkuntzak, ingurunea, antzerkia... Oso pozik gaude hemen ikasteko aukera izan dugulako eta tristura handiz agurtuko ditugu bertako irakasleak eta baita eskola bera ere.

Eskerrak eman nahi dizkiegu hemen, Lardizabalen, lanean ari diren irakasleei. Batez ere bi urtez gure irakaslea izan den Beleni; espero dugu aurrerantzean ere ondo izatea. Benetan miresgarria da irakasleek duten pazientzia...

Badakigu gure atzetik etorriko direnei ere harrera ona egingo dietela Lardizabalen, baita Lizardin ere; ongi pasako dute guk bezalaxe. Eskerrik asko urte zoragarri hauek emateagatik! ■■■

Etxebizitza eskubidea bermatzea xede


Herritar orok etxebizitza duinerako eskubidea izan arren, praktikan ez dago denen eskura etxe bat erostea edo alokairuaren prezioa ordaintzea. Etxebizitza politika publikoak eskubide hori bermatzeko tresna dira, eta Orion, aurreneko aldiz, alokairuko etxebizitza publikoak eraikiko dira. Herriak betirako izango du 46 etxebizitzako parkea beharra dutenei eskaintzeko.

Testua: **Onintza Lete Arrieta eta Aiora Larrañaga Solaberrieta**. Argazkiak: **Iban Egiguren eta Iñigo Gaiton**.

Gizarte politikak dira herri edo komunitate baten ongizatea neurtzeko adierazleetako bat. Etxebizitza politika publikoak, esaterako, onura asko ekarri dizkio aurreko hamarkadetan gizarteari. Azken batean, etxebizitza duina edukitzea beharizan oinarritzkoa da eta, horregatik, eskubidea ere bada. Hala dio Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 25. artikulua, baita Espainiako Konstituzioak ere, aurreneko tituluko 47. artikuluan, hau da, oinarritzko eskubideen atalean: “Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egoki bat izateko eskubidea. Botere publikoek bultzatuko dituzte horretarako behar diren baldintzak eta eskubide hori eraginkorra izateko behar diren arauak establezituko dituzte. Horretarako lurraren erabilera erregulatuko dute, espekulazioa ekidin eta interes orokorraren alde eginez(...)”.

Orion, 1960ko hamarkadakoak dira babestutako lehen etxebizitzak; Arantzazuko Andra Marin egin zituzten, 65. Orduetik, denera 258 etxebizitza egin dituzte. Batzuk sustapen publikokoak izan dira, beste batzuk pribatukoak, eta babes maila desberdinak izan dituzte. Aurrenekoek hamar urterako babesa zuten, eta ondoren libreen moduan sal zitezkeen. 2007tik aurrerakoek betirako babesa dute; hau da, ezin da etxebizitza horiek nahi den prezioan saldu.

Munto eremuan egingo dituzte babesa duten hurrengo etxebizitzak. Ordea, aurreneko aldiz, alokairu babestutakoak izango dira. Herrian alokairu sozialeko ia 50 etxe egongo dira laster, eta horiek betirako izango dira. Horrek onura handia ekarriko dio herriari, eta ziurrenez eragina edukiko du alokairu libreko etxebizitzaren prezioan. Izan ere, gaur egun eskaintza txikia dago



herrian, eta ondorioz, prezioak altuak dira. Azken urteetan etxe asko jarri dituzte herrian epe motzetarako turistek alokatzeko, eta horrek ere igoarazi ditu alokairuaren prezioak.

Muntoko proiektua orain hamarkada bat abiatu zuten udalak eta Jaurlaritzak, eta dena ondo bidean, 2023ko urte bukaerarako amaituta egongo da. 46 etxebizitza izango dira guztira, eta denek bi logela eta balkoia edukiko dituzte. Visesak eta Eusko Jaurlaritzak egingo dute eraikina, eta kudeaketa ere Jaurlaritzaren esku geldituko da. Oinarrizko proiektua eginda dago –Pedro Apaolaza arkitektoak egin du– eta asmoa da hirigintza baimena uztailean eskatzea eta urtea amaitu aurretik obrekin hastea.

Orioko Udaleko hirigintzako bulego teknikoko ordezkariak KARKARARI azaldu diotenez, Eusko Jaurlaritzak 2006an erabaki zuen sustapen publikoko etxebizitzaren %80 alokairuan izango zela, eta gerora legeak eman dio babes. Zergatik erabaki hori? Bada, ikusten zutelako esfortzu publikoarekin, denon diruarekin, momentu jakin batean pertsona batek zeukan beharrari erantzuten ziotela sustapen publikoko etxebizitzek, eta gainera, behin hamar urteko babes amaitzen zitzairenean, espekulazio iturri bihurtzen zirela etxe horiek. Horregatik, Jaurlaritzak eman zuen aurreneko pausoa–2005 urte inguruan– izan zen betirako babes ezartzea etxebizitzari, bai babestuetan, bai tasatuetan. Bigarren pausoa izan zen ondorioztatzea denon esfortzuak balio behar zuela denboran zehar iraungo zuen etxebizitza parke bat sortzeko eta alokairua sustatzeko. Beharra duenari erantzuna ematea da helburua. Bulego teknikokoen ustez, Jaurlaritzak erabaki oso sendoa hartu zuen horren alde. Gauza bat da, ordea, erabaki bat hartzea eta, bestea, erabaki hori gauzatzea. Aldaketa martxan jartzeak egokitzapenak



Alokairu babestuko etxebizitzak eraikiko dituzten orubea.

egitea eskatzen du, eta kudeaketa konplexuagoa da. Baliabide ekonomiko handiagoak behar dira, etxebizitzak eraikitzeaz gain, gero horiek kudeatu egin behar direlako: mantenua, konponketak... Teknikariek azaldu dutenez, Eusko Jaurlaritzari kosta egin zaio azpiegitura egoki batekin hornitzea sare hau: Administrazio publikoa da "elefante erraldoi bat", eta kosta egiten zaio mugitzea, baina behin mugitzen denean, nahiko egonkor mantentzen da. Eta orain badauka azpiegitura prest. 2002tik 2010era

babestutako eta tasatutako 100 etxebizitza egin ziren Orion, udalak berak sustatuta. Etekin txikia atera arren, gai izan zen politika publikoa garatzeko. Ordea, etxebizitzaren %80k alokairuan izan behar badu, argi dute Orio bezalako herri txiki batean udalak ezin duela halakorik bere gain hartu, ezinezkoa delako bost milioi euroko inbertsioa egin, eta gainera hori kudeatzea.

Udal teknikariek azaldu dute Orion eztabaida egon zela alokairuko etxebizitzak sustatzearren inguruan, Munto eremuari dagokionez, behintzat. Partzela hori librea zen; hau da, udalak egin zitzakeen babes ofizialeko etxeak neurri batera arte, edo tasatuak, eta udalak, buelta asko emanda, hartu zuen erabakia Jaurlaritzarekin hitzarmen bat egin eta alokairuzko etxeak egiteko. Denbora gehiago hartuko zuen, Eusko Jaurlaritzaren epeetan sartu behar baitzen, baina Orion betirako egongo den eskaintza izango da. Udalak diru gutxiago jaso zuen partzela horren truke, baina ulertu zuen sortzen dela neurri sostengatuagoan herriarentzat mantenduko den eskaintza bat, herritarren beharrei hobeto erantzungo diena, eta ez soilik pertsona jakin batzuen beharrei.

Eragileak eta alderdiak proiektuarekin bat

Alokairu sozialeko etxebizitzak egiteko proiektuak zeresana eman zuen hasieran, baina gaur-gaurkoz eragileek eta udalbatza osatzen duten talde guztiek beharrezkotzat jotzen dute ekimena, egoera zaugarrian dauden herritarren bizi-baldintzak hobetzeko. Etxeluze gaztetxeko Leire Beldarrainen esanetan, esaterako, "salgai dauden etxebizitzak oso garestiak dira, baita alokairuak ere. Soldata handia behar da prezio horiek ordaindu ahal izateko, eta gazteok, berriz, lan baldintza kaskarrak eta soldata txikiak ditugu. Alokairu soziala arazoa konpontzeko urrats bat izan daiteke, baina gazte asko dago Orion eta eskaintza motz geratuko dela iruditzen zait", adierazi du.

Caritas erakundeko Orioko arduradun Unai Manterolaren iritziz, berriz, alokairu sozialeko etxebizitzak "ezinbestekoak" dira herrian. "Herritar askorentzat arazoa bihurtu da alokairua ordaintzea. 600 euro inguruko alokairuak nagusi dira Orion; mila euro eskas irabazten dituen familia batek nola bizi behar du 400 euroekin? Horregatik, egoera zaugarrian dauden kolektiboen alde egindako ekimenak ongi-etorriak dira, alokairu sozialeko etxebizitzak kasu".

Anuska Esnal Orioko alkatearen ustez babestutako alokairuak "oinarrizko eskubidea den etxebizitza duina herritar gehienek eskura" jartzen du. "Oriotar askok alokairuaren aldeko apustua egiten du eta erakundeetatik beharrezkoa da eskaerari erantzutea". Alkateak aitortu du etxebizitza merkatuak "hutsune" asko dituela eta uste du zulo horiek betetzeko baliabideetako bat izan daitekeela alokairu soziala. "Orioko anitzagoa, inklusiboagoa, sozialagoa izateko bidean jarriko gaitu. Etxebizitza bat edukitzea bizitza proiektu bat garatu ahal izateko abiapuntua da eta horrek ezinbesteko eragina dauka herritarren ongizatean".

EAJko bozeramaile Lourdes Salsamendiren iritziz ere alokairu sozialeko etxebizitzek zuzenean eragingo dute herritarren ongizatean. "Bizitza proiektu bat garatzeko ezinbestekoa da etxebizitza izatea, horrela garatu ditzakegulako bizitzako beste arloak: lana, osasuna, ikasketak... Horregatik, alokairu soziala beharrezkoa da egoera zaurgarrian dauden kolektiboek bizitza autonomoa egiteko, eta erakundeek ahalegina egin behar dugu etxebizitza eskubidea bermatzeko". Gogoratu du, arlo horretan Eusko Jaurlaritzak ari dela urratsak egiten, eta horrelako neurriek merkatuan ere eragina izango dutela dio.

Iritzi berekoa da Ana Priede sozialista ere. Hain zuzen, aitortu du aurreko agintaldian berak negoziatu zuela Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin Munto eremuan alokairu sozialeko etxebizitzak egiteko proiektua. "PSE-EEko kideok Eusko Jaurlaritzan nahiz udaletan babestutako alokairuaren aldeko apustua egiten ari gara. Azken urteetan Iñaki Arriola sozialistak gidatu du sail hori, eta horri esker agintaldia amaitzerako herrian beharrezkoak diren alokairu publikoko etxebizitzak izango ditugu". Izan ere, PSE-EEko zinegotziak jakin badaki "gero eta zailagoa" dela herritarrentzat sustapen libreko etxebizitzak erostea. "Alokairu sozialak etxebizitza duina izateko aukera emango die gazteei, familiei, pentsiodunei eta beharra dutenei". Gainera, uste du alokairu soziala hedatzen den heinean alokairu librearen prezioa ere orekatu egingo dela.

Orain taldeko Joxe Angel Iparragirreraren iritziz ere, babestutako 50 etxebizitza inguru oriotarren eskura jartzeak eragina izango du alokairu librearen prezioan. "Espero dugu alokairu librearen prezioa ere jaistea. Orain taldeak beti babestu ditu etxebizitza publikoak egiteko politikak eta proiektuak ezaugarri jakin batzuk dituzten oriotarren ongizatea hobetuko duelakoan gaude: hala nola gazteak, garaso batez osatutako familiak, adineko pertsonak".

Etorkizuna

Etorkizunean etxebizitzaren merkatuan faktore askok eragingo dutela iritzi dute Orain taldeko kideek, baina badira udal taldeak uste dutenak alokairua izango dela babestutako etxebizitzaren etorkizuna.

**SUSTAPEN PUBLIKOKO
ETXEBIZITZEN %80
ALOKAIRUAN IZANGO
ZELA ERABAKI ZUEN
2006AN JAURLARITZAK**

**UDALAK ADOSTU ZUEN
JAURLARITZAREKIN
HITZARMENA SINATZEA
MUNTON ALOKAIRUKO
ETXEAK EGITEKO**

“Orain arte, babestutako etxebizitzak salmenta erregimenean merkaturatu izan dira nagusiki, baina herritarrek arazoak izan dituzte finantzazioa lortzeko. Horregatik, babestutako alokairua iruditzen zait aukerarik egokiena”, azaldu du Priedek. EAJk ere uste du alokairuak izan behar duela etxebizitza babestuen etorkizuna, “momentu jakin batean beharra duten herritarrei helduleku bat emateko, modu autonomoan bizitza antolatu dezaten”.

EH Bilduko alkatearen iritziz, ordea, oraindik “lan handia dago egiteko” herritar guztiek etxebizitza duin bat eduki ahal izateko. “Alokairu sozialak baditu bere mugak eta ez da herritar guztiengana iritsiko, baina guk denontzako tokia dagoen herri bat eraikitzen jarraitu nahi dugu”.

Gazteentzat sei apartamentu alokairuan

Muntoko etxebizitzaz gain, udalak beste hitzarmen bat sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin. Hala, gazteei zuzendutako apartamentu dotazionalak sortuko dira, gazteen emantzipazioa sustatzeko. Sei izango dira guztira, eta udalak Anibarko Portuan urte luzez hutsik zituen lokal batzuk erabiliko ditu horietarako. Proiektua onartuta dago udalean, lizentzia dauka, eta obrak amaituta egon daitezke datorren urterako, udaleko bulego teknikoko ordezkarien arabera.

Alokairuarekin lotuta, Bizigune programaren garrantzia ere azpimarratu nahi dute udal teknikariek. Programaren helburua da etxebizitzak merkaturatzea, eta horretarako, jabeak Jaurlaritzari hamar urterako lagapena egiten dio. Etxearen ezaugarrien arabera finkatzen du erakundeak hilean zenbat diru jasoko duen etxejabeak, eta alokairuan sartzen denak, berriz, bere diru sarreraren arabera ordaintzen du alokairua. Diferentzia hori Jaurlaritzak ordaintzen du, eta bera arduratzen da etxea egoera onean itzultzeaz jabeari. Udal teknikarien ustez, Jaurlaritzak nahi du programa hau sustatu, horrelako etxebizitzak kudeatzea gutxiago kostatzen zaiolako etxeak eraiki eta gero horiek kudeatzea baino. Orion gaur egun 3.010 etxebizitza daude, eta 2019ko datuen arabera, etxebizitza guztien %7,4 zeuden hutsik.

Hutsik dauden etxebizitza horiek alokairuan eskaintzea onuragarria litzateke herriarentzat, baina ez da hori alokairuarekin lotuta dagoen arazo bakarra. Etxebizitza turistikoek kostako herrietan indarra hartu dute, eta hori faktore garrantzitsua bilakatzen ari da. Fenomeno berria da, eta udal teknikarien ustez, dudarik gabe eragina dauka herri bateko alokairu aukeran eta prezioetan. Alokairuaren garestitze orokorra dakar, jabeek pentsatzen dutelako atera diezaioketela etekin gehiago etxe horri epe luzerako prezio ‘normal’ batean alokatuta baino. Prezioa distorsionatzeaz gain, bizikidetza arazoak ere sortzen ditu. Gai hori erregulatu dezakete udalek, baina ez da nahikoa ordenantza aldatzea. Plan orokorraren barruan arautu beharrekoa da, eta udala ari da planteatzen nola egin hori. Teknikarien arabera, oso ondo zehaztu eta arrazoitu behar da zer baldintzatan onartu etxe turistikoak, zer baldintzatan ez, non jarri mugak... Baina argi dute erregulatu egin behar dela. Izan ere, Orion legeztatutako 56 etxebizitza turistiko daude.

Etorkizuneko etxebizitzak, non?



IÑIGO GAITON

Etxebizitzek eta etorkizunaz hitz egitean, oriotar askori burura datozkion bi eremu dira Kosta Tailerretik autobideko zubi azpiraino dauden baratzeena eta Gureak lantegia zegoen zonaldea; errioaren eskuinaldea, alegia. Nola garatuko dira bi eremu horiek etorkizunean?

Udaleko Hirigintza Saileko bulego teknikoan azaldu dute baratzeen eremua balore agrologiko altuko gunea dela. Arloko planak eta udal arauak hori esaten dute. Itsas eremuaren lehen 100 metroetan, hau da, ibaiertzeko lehen 100 metroetan, ezin da ezer eraiki, Kostako legeak muga hori ezartzen baitu –soilik itsas bazterrerako beharrezkoak diren eraikinak baimentzen dira–.

Udal teknikariek ez dute uste legea aldatuko denik. Bestalde, ordea, Lurralde Arloko Planak esaten du hori dela garatzeko gelditzen den eremu bakarrenetakoa.

Beraz, udal teknikariek ez dute uste epe ertainean ezer egingo denik eremu horretan, baina etorkizunean garatuko dela uste dute.

Errioaren eskuinaldean, berriz, baratzeetan baino lehenago egin daiteke esku hartzeren bat. Izan ere, bulego teknikoan uste dute eremu horren inguruan badagoela adostasuna eragileen artean, Gureak enpresa zegoen eraikin hori oso hutsik dagoelako eta ikaragarritzko mugak dituelako erabilerari dagokionez, itsas zorpeko eremuan baitago.

Eremu horretan fabrikak itsasoraino iristen dira, eta legeak esaten du itsasoko gunen urbanoetan gutxienez 20 metro utzi behar direla. Beraz, eremu horretako

**BARATZEEN EREMUA
BALORE AGROLOGIKO
ALTUKO GUNEA DA**

erronketako bat hori da. Mutiozabal parean gelditu den plazaren gisako espazioa utzi beharko litzateke. Metro asko dira, bestaldean errepidea dagoelako.

Hala ere, udaletxean badituzte hori garatzeko ideia batzuk: ibai pasealeku bat egin nahi da, bi altuera edukiko dituen, eta atzean etxebizitzak egongo lirateke. Etxebizitza batzuk babestuen izan litezke, lur hori lurzoru hiritar ez kontsolidatua delako, eta bestelako dotazioak ere edukiko lituzke.

Teknikarien iritziz ekintza inportantea da herriarentzat, eta adibidetzat jarri dute Mutiozabalen berritzea. Haien esanetan, urte askoan aurreneko aldiz eremu horretara begira jarri dira oriotarrak. “Orain arte ez zen begiratzen; bazirudien hori ez zela Orio”.

Errioaren alde horrekiko lotura indartu eta hobetu egin behar dela uste dute bulego tekniko arduradunek, eta paseoa egiteak hori ahalbidetuko lukee.

Udal bulego teknikoaren ustez, eskuinaldeak ikaragarri behar du leheneratzea, Motondotik hasi eta beste muturreraino. Motondok badu leheneratzeko aukera, Santio Errekak eta Ubegunek ez bezala. Garai batean hor zeuden padura inportanteenak, baina desagertu egin dira, eta orain Motondo bihurtu da garrantzitsua.

Herritar, etxebizitza eta aparkaleku kopurua, estuki lotuta

Hazten ari den herria da Orio: 2002an 4.200 biztanle bazituen, gaur egun 6.200 ditu. 3.010 etxebizitza ditu herriak, eta epe laburrean etxe gehiago eraikiko dira. Hainbat faktorek eragin dute herriaren hazkunde azkarra; besteak beste, Donostiarako autobiderako sarrera-irteerak jartzeak eta Zarautzen urte askoan etxebizitza berririk egin ez izanak.

Herritarrek gehitu ahala, autoak ere gehitu egiten dira. Horregatik, udalak badu aparkaleku gehiago egiteko asmoa. Nahikoak izango diren ala ez, denborak esango du. Esaterako, frontoian egingo dituzten etxeen azpialdean, orubea bere osotasunean hartu eta aparkaleku soberakina sortzeko asmoa dago. Hau da, egingo diren etxebizitzek jabeentzat ez ezik, herritar gehiagorentzat garajeak egongo lirateke bertan. Dena den, aurrena azterketa geoteknikoa egin behar da, ikusteko bi solairu egin daitezkeen, eta teknikoki zentzuzkoa izango litzatekeen ala ez, errentagarria izateaz harago.

Udalak oso ondo identifikatuta du herrian zer tokitan dagoen aparkaleku falta. Gaur egun, gabezia handienak daude alde zaharrear eta ensantxean; lehenengo ensantxean ez dago garajerik, eta horregatik egin nahi dira frontoiaren azpialdean. Alde zaharrear ere



IBAN EGIGUREN

Datozen etxebizitza promozioak

Urtea eta tokia	Etxebizitza kopurua eta mota	Mota
2021-2022: Abaromendi	18+18=36	Libreak
2021: Anibarko Portua	6 apartamentu	Gazteentzat alokairua
2021-2023: Leunda	27	Libreak
2022-2024: Frontoia	30	Libreak
2023 amaiera: Munto	46	Alokairu soziala
Dikea	260, horietatik 60 babestu	
Guztira:	405 etxebizitza berri	

ITURRIA: ORIOKO UDALA

horregatik egin ziren 100 aparkaleku inguru, horietatik 36 udalak sustatuta. Soberakinak, ordea, ez dira beti bat-batean betetzen. Adibidez, Munton, 300 tokiko aparkalekua egin zuten, eta orain 200 daude okupatuta. Azkenik, udal teknikariek beste lau faktore aipatu dituzte arazoa azaltzerakoan: lehen familia bakoitzeko kotxe bat zegoela, eta orain 18 urtez

gorako pertsona bakoitzeko kotxe bat dagoela; legeztatutako garaje adina kotxe dagoela baina jendeak ez daukala ohiturarik garajea erabiltzeko; Aiako bizilagun askok bizimodua Orion egiten dutela; eta Anibarko Portuak eta hondartza aldeak herriarekin jarraikortasunik ez dutenez, autoa hartzeko ohitura dutela bertan bizi diren askok. ■■■



ZOZKETA!

Saria: Iñaki Arrillaga artistaren 5 lamina markoarekin.
 Parte hartzeko uztailaren 23a baino lehen bidali
karkara@karkara.eus posta elektronikora zure datuak.
 Karkarako bazkide izatea da baldintza bakarra.

ANIMATU ETA PARTE HARTU

Karkara



Eskubaloia nesken artean errotuz

2019ko martxoaren 8an, emakumeentzat horren seinalatua den egunean, ilusioz ekin genion guretzat oso berezia izaten ari den proiektu honi. Gogotsu abiatu ginen eta bidean emandako pauso bakoitza gozatzen dihardugu, azken helmugara iristea baino garrantzitsuagoa baita bidean zoriontsu izatea.

Unean uneko beharrei eta eskakizunei erantzuten ahalegindu gara momentu oro, hori dela eta, emakumezkoen kirola sustatu eta hainbat kirol mota emakumeengana zabaltzea izan dugu xede hasieratik. Herritarrak zein ingurukoak ematen ari diren erantzuna ikusita, oso eskertuta gaude, eskubaloiarekiko zaletasuna pizteaz gain, familia giroa sortzen ari baita Orko Eragin eskubaloiaaren bueltan.

Bi urtetan klub honek lortutakoa handia izan da. Argi dago kadete mailako Sinergia taldearen lorpena (Espainiako Sektoreko Txapelketara sailkatu izana) garrantzitsua dela klubarentzat, baita kadete zein jubenilak Euskal Ligara igo izana ere. Hala eta guztiz ere, kirol emaitzetatik harago, guretzat lorpena gaztetxoek kirol hau aukeratzea da, emakumeen kirola herrian sustatzea, herriko jendea gazteen erreferente bilakatzea, gurasoak (eta batez ere Guraso


**MILA ESKER BIHOTZEZ
PROIEKTU HONETAN
SINISTU ETA HONEN
ALDEKO APUSTUA EGIN
DUZUEN GUZTIOI**

Batzordeko kideak) dei egin orduko laguntzeko prest egotea eta guztion onerako herrigintzan aritzea.

Lorpenak aipatzen hasita ezin esan gabe utzi infantilek eta eskubaloia eskolan dabiltzan gazteenek izan duten jarrera eredugarria. Hilabete luzez zigortuenak beraiek izan dira, eta behin eta berriz erantzukizun eta gogo erakustaldia eman digute. Beraien osasun eskubideak urratu dituzte gazteak izateagatik bakarrik, eta guk egoera tamalgarri horren aurrean sufritu egin dugu. Hori guztia ikusita, argi dago gure garaipenik handienak ez direla markagailuan islatzen, eguneroko lanean baizik.

Ekintzak proposatzen hasi ginenetik hogeita lau hilabete igaro dira. Orokorrean,

HAUXE BAI JENEROA!





guztiontzat hilabete gogorak izan dira, eta zer esanik ez hasiberria den proiektu bat aurrera eramateko. Gure jarduna normaltasunez egiteko oztopo ugari izan ditugu bidean pandemia egoera dela eta, baina aurrera egin ahal izan dugu, etxetik bada ere. Hilabete horietan ekimen ugari antolatu

ditugu, besteak beste, eskubaloia udalekuak; Gabonetako topaketak; etxeratze aginduan geundenean entrenamenduak online; familientzat erronkak; eta Orio Eragineko familiaren bilgune modura, bingo partidak. Horiez gain, Karela torneoaren bi edizio, hondartzako eskubaloia eta

belar eskubaloia ere egin ditugu; baita guztia prest izanda ere COVID-19 pandemia zela-eta gauzatu ezin izan genuen Tortosako torneoa elkarte guztiarentzat. Azken hori egoerak baimentzen duenean klubak egingo duen lehen ekintzetako bat izango da, jokalaria zein entrenatzaileon nahietako bat baita.

Aurretik aipatutako guztia, ordea, ez litzateke posible izango udalaren eta herriko merkataritzaren laguntzarik gabe, beraz, mila esker laguntzaile, kolaboratzaile eta babesle izan zaituztegun guztioi.

Amaitzeko, mila esker bihotzez proiektu honetan sinistu eta honen aldeko apustua egin duzuen guztioi eta bereziki Orio Eragin eskubaloia klubaren parte zaretenoi. Honek lanean jarraitzeko indarra ematen digu.

Ooorio Eragin! ■■■



Inspirazioaz



ARITZ PARDINA

Jon Alkainek apirileko KARKARAn esan zituen hitzak, berez nabariak badirudite ere, garrantzia handikoak dira, egunero gogoratu eta gogorarazi beharrekoak: “Jende askok ez daki jantzi bat sortzeko zer nolako *lana* egin behar den aurretik”. Horra, bada, hitzok. Hauek irakurri ostean, galdera bat egin beharko genioke geure buruari: zergatik sentitzen dute sortzaileek egiten duten hori, funtsean, lana dela baieztatzeko beharra? Nire ustez, pentsa daitekeen edozein artista bere ekarpenen ikuspuntutik soilik balioztatzen dugulako. Ordea, nekeza egiten zaigu sortzailea langilea ere badela ikustea.

Izan ere, sortzaileek, are eta gehiago gazteak badira, ahalmen bereziak dituztela diogu. Haiek adierazteko, bestalde, makina bat hitz erabiltzen ditugu, esaterako: “irudimena”, “gustua”, “bereizmena” eta beste hainbat. Zalantzarik gabe, gaztetatik nabarmentzen diren sortzaileek berezko gaitasunak dituzte, inspirazio berezi bat dutela esan genezake, eta sorkuntzaz ari garenean ezin dugu ikuspuntu hori ekidin. Ordea, erabiltzen ditugun hitzek askotan saldu egiten gaituzte eta, hala, inspirazioaz aritzean, sortzailearen egunerokotasuna ahaztu ohi dugu.

Galdera bat erantzutea beharrezkoa zaigu, hortaz: zer da inspirazioa? Zerk eramaten du pertsona bat zentzuzko adierazpen eder bat egitera? Hasiera batean, halako prozesuez hitz egitean ezaugarri jainkotiarrez ari garela dirudi. Adibidez, ulergaitza egiten zaigu idazle on batek zurian dagoen orri batetik abiatuta belaunaldietan zehar irakurria izango den obra bat sortzeko duen gaitasuna. Nola egin du? Istorio bat pentsatu eta sortu du? Ideia bere buruan *jaio* edo *piztu* da, besterik gabe?

Zaila da gaia argitzea, baina korapilo hau askatzeko proposamen bat egin nahiko nuke. Une batez pentsatzen bada, edozein arte motak zerbait irudikatu, sortu, osatu eta igortzeko ahalmena eskatzen du. Aipatutako prozesu hauek, beraz, ez dira zain dagoen norbanakoarengana haien kabuz iristen. Aitzitik, elementu horiek jarraikitasuna, teknika eta jakinduria eskatzen dute, eta, horiek guztiak, zalantzarik gabe, lanaren ondorio zuzena dira. Sormen hutsa baino, denboran zehar sortutako materialaren pilaketa, aukeraketa eta osaketa da artistaren berezko jarduna.

Behin hona iritsita, Alkainen hitzak orokortu nahiko nituzke: jende askok ez daki sormen baten atzean lan handia dagoenik edo, are eta gehiago, jende askok ez du uste obra baten atzean dagoen hori lana denik ere. Hori, tamalez, ez da gure egunerokotasunera mugatzen den uste soila. Kontrara, kultura sektorearen prekarietateak eta sortzaile txikiek euren egoera arautzeko dituzten zailtasunek, besteak beste, ezin hobe adierazten dute kultura eta lanaren arteko bereizketa egiturazko arazo baten isla besterik ez dela. ■■■

**JENDE ASKOK EZ DU
USTE OBRA BATEN
ATZEAN DAGOEN HORI
LANA DENIK ERE**



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldeak
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Geltoki bidea, 1 · ZARAUZ · ☎ 943-13 50 16 · www.biyona.net



*Hornitu goxo-goxo zure
etxebizitza eroso
egoteko*

*Prezio paregabe batetik,
2500€...egongela, logela
eta sofa (koltxoia barne)*



Estrata 3. Pab. Errasti (Aginaga Auzoa) 20170 USURBIL
Tel./FAX-a: 943-36 93 59 · Mugikorra: 676 35 56 35
mueblesaguinaga@mueblesaguinaga.com

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

PAKO IMAZ

pertsianak

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

Hemengo haragia.
Ettxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

**HARATEGIA
PATXI
OLIDEN
URDATEGIA**

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

Portu
Erreteta - Jateak

Kazolitak, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

**SU
KIA**
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29

**Sagasti
LEIHOAK**

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orrio

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

www.sagastileihoak.com

Ttipi

Eusko Gudarien, 15
ORIO
943-25 96 95

ttapa

Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiopang-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.

Indar entrenamendua



TESTUA: ITZIAR OLASAGASTI

Ikasturtean zehar bezero batek aipatu zidan oso emakume gutxi ikusten zituela kiroldegiko muskulazio gunean. Nik, aldiz, erantzun, gidatutako jardueretan ere oso gizonezko gutxi ikusten nituela. Bera mutu, eta airean gelditu zitzaigun bioi galdera: non ote dago arazoa?

Sarri entzun izan dugu – jendeak ere asko aipatzen du– kosta egiten dela emakumeak muskulazio gunera gerturatzea. Hala ere, heziketa lan handia egiten ari da gizartea, eta gazteen artean ere aldatzen doa joera hori. Ikusi besterik ez dago eguneko ordu batzuetan zenbat emakumezko gerturatzen diren muskulazio gunera.

Baina zer da indar entrenamendua? Indarra, gihar uzkurduraren bidez, kanpoko erresistentziaren (grabitate, pisu edo aurkakoaren indarraren) kontra jarduteko gizakiok dugun kapazitatea edo ahalmena dela esan dezakegu. Beraz, indar entrenamendua ekintza hori lantzen duen ariketa-jarduera orori deritzo.

Bestalde, gidatutako saioetara gizonezkoak gerturatzea ere ez da lan erraza. Ezin ahaztu, indarra lantzea bezain

garrantzitsua dela mugikortasuna, arnasketa, koordinazioa eta beste hainbat gaitasun aktibatzea eta lantzea.

Airean utzi dugun galdera horretan badira hainbat uste eta aurreiritzi. Esaterako, zergatik lotzen ditugu beti indar entrenamenduak pertsona gihartsuekin edo pisu eta muskulazio makinekin? Kulturisten gorputzak etortzen zaizkigu burura eta indarra lantzen badugu puztu egingo garela ustea dugu. Aldiz, ez dugu indar entrenamendua emakumezkoen rolaekin eta argaltze prozesuarekin lotzen. Hortxe bi aurreiritzi oker.

Argi utzi behar dugu indarra lantzean ez dela beti hipertrofia gauzatzen (muskulu baten tamaina edo bere sekzio gurutzatua areagotzea da), nahiz eta muskulazio gunean askok hori bilatzen eta lantzen duten. Aldiz, gidatutako saioak ere ez dira beti saio koreografiatuak izaten. Gizonezko askok aitzakia

moduan hori erabiltzen dute: ez direla batere iaioak koreografia edo dantza estiloan.

Lotsa alde batera utzi eta saioen bat probatzera animatuko nituzke, gidatutako saioetan ere indarra lantzen dugula ikus dezaten, eta muskulazio salan bezainbeste izerdi, neke edo agujeta izan ditzaketela egiazta dezaten.

Izan ere, pisua mugitzeaz harago doa indar entrenamendua. Adibide moduan esan, osteoporosiaren prebentzioan sekulako garrantzia duela indarra lantzeak, zer esanik ez osasunaren egoera orokorrerako. Horregatik, azken hilabeteetan taldetxo bat osatu dugu. Bertan, indarra landuz, karga eta inpaktu kontrolatuarekin muskulua indartuz, etorkizuneko osteoporosiari aurre egiten aritzen gara.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar argaltze programetan ere egokiena dela lan kardiobaskularra indar entrenamenduarekin uztartzea.

Aurreiritzi eta usteak alboratu eta indar entrenamendu egoki bat egitera animatzen zaituztet. Muskulazio gunean zein gidatutako saioan, beti ere eta batik bat hasieran, aditu baten laguntzaz, noski. ■

**AURREIRITZIAK
ALBORATU ETA INDAR
ENTRENAMENDU EGOKI
BAT EGITERA
ANIMATZEN ZAITUZTET**

BODEGON
Sarasua

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05


Seguros Bilbao Santi Barranco
Orioko Ordezkarria
Endaia Enparantza, 1 • ORIO • sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 • 688 71 48 69

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
Eusko Gudari, 5 • ORIO • 943-83 12 36


Usurbil Autoak
TXAPA-PINTURA-MEKANIKA
30 URTE ZERBITZUAN
DESINFEKZIO GUNEA
ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE!
ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA, USURBIL 943 36 10 79


BAZKIDE EGIN NAHI DUZU?
Deitu telefono zenbaki honetara
943-83 53 98
MENUAK EMATEN DIRA
Herriko Plaza, 1


Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
943-89 92 43
012137aa@hezkontza.net

ZINKU
ERAIKUNTZAK
• Igeltserotza orokorra
• Etxebizitzaren erreformak
• Teilatuak
• Sukalde, komunak, etb.
• Eraisketak
*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*
Ander Zinkunegi
667 74 02 79


Zarautz
Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura
24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia • Lekualdatzeak •
Eginbide guztien tramitazioa
Araba kalea 35 • ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus

Euskara Orion. Non egon nahi dugu 10 urte barru?



JABIER ZABALETA: EUSKARA TEKNIKARIA

Udazkenean gogoeta-prozesu zabal bat abiatuko dugu Orion, izenburuko galderari erantzuteko: «Non egon nahi dugu, euskararen egoerari dagokionez, hemendik 10 urtera?». Idatzi honen bidez, gogoeta horren berri eman eta parte hartzeko gonbita egin nahi dizuet gaiarekin interesa duzuen guztiei.

Aldian behin, komeni izaten da gelditu, inguruari erreparatu eta haizearen indarrari tamaina hartzea, txalupa nora bideratu erabakitzeko, etapa honetan zein portura iritsi nahi dugun zehazteko. Seneka filosofo estoiko kordobarrak esana da, orain dela bi mila urte: «Aldeko haizerik ez da nora joan ez dakienarentzat».

Azken urteotan, adituak esan eta esan ari dira aldaketa garaia bizi duela euskararen aldeko mugimenduak eta, aurrera egiten jarraitzeko, estrategia berriak behar ditugula. Kike Amonarritz soziolinguista ezagunak «Euskararen bidegurutzetik» liburua idatzi zuen 2019an, eta han hau esaten zuen, besteak beste: «Euskararen panorama guztiz aldatu da urte gutxitan, munduan zehar hizkuntzen egoera aldatzen ari delako, teknologia berriek inork uste ez

zituen errealitateak ekarri dituelako, eta belaunaldi berriek bestelako pentsaera eta izaera dakartelako. Horren aurrean, euskararen biziberritzea bilatzen dugunok pentsatu beharra daukagu nondik jo, nola ekin, orain arteko bideak eman beharrekoa eman duelakoan».

Orion ere badaude zantzuak pentsatzeko ziklo baten bukaeran eta beste baten hasieran gaudela: asko aurreratu dugu alor batzuetan, baina ez gara iritsi amesten genuen herri euskalduna eraikitza. Orain, Jon Sarasuaren terminotan esateko, «ametsak doitu» egin beharko ditugu; ez, inolaz ere, etsiak hartuta bertan goxo egiteko, baizik-eta aurreratzen segitzeko eta erronka berriei bestelako tresna eta jokamoldeez erantzuteko.


Aurrerantzean gauzak beste modu batera egin beharko ditugula esaten ari bagara, planteatzen dugun gogoeta-

prozesuak ere desberdina izan beharko du. Iaz Orio OINHERRI Herri Hezitzaileen sarean sartu zen eta, sartzearekin bat, mugimendu horrek proposatzen dituen oinarritzko printzipioak aplikatzeko konpromisoa hartu zuen: besteak beste, herritarren parte-hartzea sustatzea eta komunitate-sarea eta auzolana indartzea. Printzipio horien arabera egin nahi dugu udazkeneko gogoetaldia: prozesu parte-hartzaile zabala egin nahi dugu eta ahalik eta sektore gehienaren inplikazioa lortu: dendariak, tabernariak, kirol-taldeak, zerbitzu-enpresak, kultur elkarteak, etorkinen elkarteak, ikastetxeak... Guztiei galdera bikoitza planteatuko diegu: Nolakoa Orio nahi zenuke, 10 urte barru, euskarari dagokionez?

Zer egingo duzu zuk, zure alorrean, 10 urte barrurako nahi duzun egoera horretara iristeko?

Gogoeta zabal horretan parte hartzeko deia egin nahi dizuet guztioi. Herritarren nahia da lehenbiziko baldintza edozein aldaketa bideratzeko eta, oriotarrek nahi badute, herri hau euskalduna izango da etorkizunean ere, orain arte bezala. Guztiona da horren ardura. ■

**ORIOITARREK NAHI
BADUTE, HERRI HAU
EUSKALDUNA IZANGO
DA ETORKIZUNEAN ERE,
ORAIN ARTE BEZALA**



DOMINOAN

Osa itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Meloia, angurria, muxika eta bi izozki mota marraztu behar dituzu.



Siestan

Bederatzi irudi-zati hauetatik sei engainariak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta, hala diruditen arren. Zeintzuk dira onak eta zeintzuk engainariak?



5

6

7

8

9

SUDOKU

Uztaila eta abuztua (edo agorrila) urteko hilabeterik ederrenak dira batzuentzat, sasoi horretan ez delako eskola joan beharrik izaten. Bete itzazu bi sudokuak, lehena UZTAIL hitza osatzen duten hizkiak idatziz (U, Z, T, A, I eta L), eta bigarrena AGORRIL hitza osatzen duten hizki desberdinen bidez (A, G, O, RR, I eta L). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

U	I		T	Z
		Z		U
L				T
A		T		L
	A		T	
	U			Z

		G		RR
RR	A		O	
I			G	RR
L				O
	L			I
	RR		L	G




Ai ene! Tranpolinera igo eta irrist egin du gizajoak! Zein da bere itzal zuzena?

Itzala



Hamaitakoa



Aurki itzazu bi irudion artean dauden 11 aldeak.

Ordena itzazu arrain harrigarri hauek handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 6.



Handitik txikira



Mezua

Eman marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta esaera polit bat agertuko zaizu.

ALFABETO A



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabamentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko kalen. Tel. 690 27 28 42.

Garaje bat alokatzen da Anibarko portuan. Tel. 649 22 87 87.

Bikote jator batentzako etxe polita alokatzen dut Orion. Tel. 722 33 09 07.

LAN BILA

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo ordu-

ka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samantha. Tel. 643 85 78 54.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako deitu honako telefono zenbakira: 697 65 05 19.

Ingeleseko klase partikularrek emateko prest nago. 20 urteko neska oriotarra naiz, ordutegi malgua daukat. Tel. 690 06 63 11.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketarako edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo ordutegia. Tel. 627 09 07 06.

16 urteko neska, udarak partikularrek emateko prest. LHko edozein ikasgai musika eta ingelesa barne. Tel. 688 73 00 90. Arantza.

21 urte dituen Orioko neska bat naiz. Udan goizez haurrak zaintzeko prest nago. Asko gustatzen zaizkit haurrak eta primeran moldatzen naiz beralekin. Interesatuak deitu honako telefono zenbakira: 629 21 28 38.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguruia ordaindua du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatura... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

MAILAN (Tren-geltoki atzealdean). Jantokiko antzinako altzariak, kaobazkoak, kalitate handikoak. Aukera ona. Deitu: 943-89 03 45 edo 669 78 19 63.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	10:35 eta 22:56	04:13 eta 16:34	●
2	11:35 eta 23:56	05:09 eta 17:35	●
3	12:39	06:10 eta 18:40	●
4	00:59 eta 13:40	07:11 eta 19:42	●
5	02:00 eta 14:33	08:09 eta 20:39	●
6	02:53 eta 15:19	08:59 eta 21:28	●
7	03:40 eta 16:00	09:42 eta 22:12	●
8	04:21 eta 16:37	10:21 eta 23:28	●
9	04:59 eta 17:13	10:58 eta 23:28	●
10	05:36 eta 17:48	11:33	●
11	06:12 eta 18:24	00:04 eta 12:09	●
12	06:49 eta 19:02	00:40 eta 12:46	●
13	07:28 eta 19:42	01:18 eta 13:24	●
14	08:09 eta 20:24	01:57 eta 14:06	●
15	08:53 eta 21:11	02:40 eta 14:51	●
16	09:43 eta 22:03	03:27 eta 15:42	●
17	10:40 eta 23:02	04:21 eta 16:40	●
18	11:46	05:21 eta 17:46	●
19	00:12 eta 12:56	06:29 eta 18:57	○
20	01:26 eta 14:04	07:39 eta 20:08	○
21	02:38 eta 15:07	08:45 eta 21:13	○
22	03:41 eta 16:04	09:43 eta 22:12	○
23	04:37 eta 16:55	10:35 eta 23:05	○
24	05:28 eta 17:43	11:24 eta 23:54	○
25	06:14 eta 18:28	12:09	○
26	06:57 eta 19:12	00:39 eta 12:53	○
27	07:38 eta 19:54	01:22 eta 13:35	○
28	08:17 eta 20:35	02:04 eta 14:17	○
29	08:57 eta 21:17	02:45 eta 15:00	○
30	09:39 eta 22:01	03:37 eta 15:46	○
31	10:27 eta 22:53	04:13 eta 16:38	○

FARMAZIAK-UZTAILA

ZARAUZ

3, 4 eta 13.	ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
10, 11, 15, 21 eta 27.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
5 eta 9.	GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
16, 22, 28 eta 31.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
8, 14, 20 eta 26.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70
7, 19 eta 30.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
23 eta 29.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
6, 12, 24 eta 25.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
17 eta 18.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

AGENDA

AIA

UZTAILAK 11 IGANDEA

Txapelketa: Gipuzkoako Harri txikien harrijasotzea.

UZTAILAK 30 OSTIRALA

Kontzertua: Unidad Alavesa.
22:30ean.

UZTAILAK 31 LARUNBATA

Kontzertua: Demode Quartet. *Epa.*
22:30ean.



ABUZTUAK 1 IGANDEA

Ikuskizuna: Bocabeats Comedia.
22:30ean.

ABUZTUAK 5 OSTEGUNA

Puzgarriak.
15:00etatik 19:00etara.

ABUZTUAK 6 OSTIRALA

Bertso jaialdia.
22:30ean.

ABUZTUAK 7 LARUNBATA

Kontzertua: Zea Mays.
22:30ean.

ABUZTUAK 8 IGANDEA

Antzerkia: Bost Minutun.
22:30ean.

ABUZTUAK 9 ASTELEHENA

Musikarium.
19:30ean.

ABUZTUAK 10 ASTEARTEA

Txapelketak: Gipuzkoako Ingude txapelketa.
Gipuzkoako Lokotx biltze txapelketa.
Emakumezkoen Harrijasotze txapelketa.

ABUZTUAK 11 ASTEAZKENA

Haur antzerkia: Potx eta Lotx.
19:30ean.

ORIO

UZTAILAK 9 OSTIRALA

Kontzertua: Eñaut Elorrieta.
Kiroldegian, 19:00etan.

UZTAILAK 10 LARUNBATA

Zinea aire librean.
Hondartzan, 22:00etan.

UZTAILAK 24 LARUNBATA

Zinea aire librean.
Hondartzan, 22:00etan.

UZTAILAK 30 OSTIRALA

Kontzertua: Bulego.
Plazan, 20:00etan.

ABUZTUAK 7 LARUNBATA

Zinea aire librean.
Hondartzan, 22:00etan.

ABUZTUAK 13 OSTIRALA

Kontzertua: Strapalucio.
Plazan, 20:00etan.

ABUZTUAK 18 ASTEAZKENA

Dantza emanaldia: Kimuak.
Plazan, 20:00etan.

ABUZTUAK 20 OSTIRALA

Zinea aire librean.
Hondartzan, 22:00etan.

ABUZTUAK 21 LARUNBATA

Kontzertua: Kalakan.
Plazan, 20:00etan.

ABUZTUAK 28 LARUNBATA

Kontzertua: Kilimak.
Plazan, 20:00etan.

UZTAILAREN 16TIK IRAILERA

Zirkua.



Puntua jarrita

Egilea: Ibai Esoain
(Doinua: Haiziak bidali du)

1

Egin behar al duzu oporrik udaran?

Mendi buelta Larrainen,
bainutxo bat Lagan.
Ea topatzen garen
Boiron estropadan;
posible den neurrian,
pozik firin-faran.

2

Egun leku oro da
amu turistiko.
Oro paregabe ta
oro idiliko.
Itsu-itsuan ez naiz
bila ibiliko.
Eguneroko martxak
ez nazala ito.

3

Lanaz eta denboraz
nabil muga-mugan.
Beti gauza berbera
gertatzen zait udan.
Garaia heldu eta,
egoten naiz dudan,
opor(tu)nitaterik
izango al dudan.

Hurrengo bertsolaria:

Josu Arruti.

Puntua:

Kakoak zorrozuta
hegaluze bila

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Ibai Esoaineri jarri dio puntua Joseba Altunak: "Egin behar al duzu oporrik udaran?". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



GIPUZKOAK

BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000
gipuzkoarrei esker,

**European
desberdintasun
maila txikienetarikoa**
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoarKonpromisoa